

**2024. urteko ordenantza fiskalen behin betiko onespena.**

Araututako jendaurreko informazio epea batere erreklamazio edo oharpenik aurkeztu gabe iragan denez, behin betikotzat jo dira 2023ko irailaren 27an hartutako hasierako erabakiak, tasa, kuota, tarifa eta ordenantzak finkatu eta aldatzekoak, 2024ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin. Aldatutako testuak honakoak dira:

**1.- ZERGAK:**

**1.1.- ONDASUN HIGIEZINEI BURUZKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du 2024. urterako balio katastralaren igoera %2,5ekoa izango dela.

Zerga-tasari dagokionez, %2,6ko igoera aplikatzea onartu da.

ERANSKINA honela geratu da:

	<b>ZERGA-TASA (%)</b>
<b>A) <u>HIRI-ONDASUNAK:</u></b>	
Bizitegi-lurzoruan kokatutako hiri-ondasunak	0,2365
Industria-lurzoruan kokatutako hiri-ondasunak	0,5036
<b>B) <u>LANDA-IZAERAKO ONDASUNAK:</u></b>	1,11

Hobariak:

<b>Bizikidetz-unita- teko pertsona kopurua</b>	<b>HOBARIA</b>		
	<b>90%</b>	<b>75%</b>	<b>50%</b>
1	< 15.400 €	15.400 € - 17.500 €	17.501 € - 21.000 €
2	< 20.160 €	20.160 € - 22.820 €	22.821 € - 27.440 €
3	< 21.980 €	21.980 € - 25.060 €	25.601 € - 30.101 €
4 edo gehiago	< 23.660 €	23.660 € - 27.020 €	27.021 € - 32.340 €

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Ogasunak ematen duen informazio fiskala.



SEGURAKO UDALA

## 1.2.- TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA

Koefizienteei %2,6ko igoera aplikatzea onartu da.

ERANSKINA honela geratu da:

IBILGAILU MOTA ETA POTENTZIA	POTENCIA Y CLASE DE VEHÍCULO	KUOTA
<b>A) <u>TURISMOAK:</u></b> 9 zaldi fiskaletik beherakoak 9-11,99 zaldi f. bitartekoak 12-13,99 zaldi f. bitartekoak 14-15,99 zaldi f. bitartekoak 16-19,99 zaldi f. bitartekoak 20 zaldi fiskaletik gorakoak	<b>A) <u>TURISMOS:</u></b> De menos de 9 c.f. De 9 hasta 11,99 c.f. De 12 hasta 13,99 c.f. De 14 hasta 15,99 c.f. De 16 hasta 19,99 c.f. De más de 20 c.f.	40,77 82,55 149,51 209,31 269,13 328,93
<b>B) <u>AUTOBUSAK:</u></b> 21 plaza baino gutxiagokoak 21-50 plaza bitartekoak 50 plaza baino gehiagokoak	<b>B) <u>AUTOBUSES:</u></b> Autobuses de menos de 21 plazas De 21 a 50 plazas De más de 50 plazas	198,45 280,38 352,68
<b>C) <u>KAMIOIAK:</u></b> 1.000 kg baino beherako k.e. 1.000-2.999 kg bitarteko k.e. 2.999 kg-9.999 kg bitarteko k.e. 9.999 kg baino gehiagoko k.e.	<b>C) <u>CAMIONES:</u></b> De menos de 1.000 kg de c.u. De 1.000. kg a 2.999 kg de c.u. De 2.999 kg a 9.999 kg de c.u. De más de 9.999 kg de c.u.	101,15 198,40 280,38 352,68
<b>D) <u>TRAKTOREAK:</u></b> 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak 16-25 zaldi f. bitartekoak 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	<b>D) <u>TRACTORES:</u></b> De menos de 16 c.f. De 16 a 25 c.f. De más de 25 c.f.	42,52 66,37 198,40
<b>E) <u>TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK:</u></b> 750-1.000 kg bitarteko k.e. 1.000-2.999 kg bitarteko k.e. 2.999 kg baino goragoko k.e.	<b>E) <u>REMOLQUES Y SEMIREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA:</u></b> De menos de 1.000 kg de c.u. De 1.000 a 2.999 kg de c.u. De más de 2.999 kg de c.u.	42,63 65,82 198,40
<b>F) <u>BESTELAKO IBILGAILUAK:</u></b> Ziklomotoreak 125 z.k. baino gutxiagoko motozikletak 125-250 z.k. bitarteko motozikletak 250-500 z.k. bitarteko motozikletak 500-1.000 z.k. bitarteko motozikletak	<b>F) <u>OTROS VEHÍCULOS:</u></b> Ciclomotores Motocicletas hasta 125 cm <sup>3</sup> Motocicletas de más de 125 hasta 250 cm <sup>3</sup> Motocicletas de más de 250 hasta 500 cm <sup>3</sup> Motocicletas de más de 500 hasta 1.000	11,13 11,13 20,20 39,47 78,95



1.000 z.k. baino goragoko motozikletak	cm3 Motocicletas de más de 1.000 cm3	157,83
--	---	--------

### **1.3.- HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi du 2024. urterako balio katastralaren igoera %2,5ekoa izango dela.

Zerga-tasari dagokionez, %20ko zerga-tasa aplikatzea onartu da.

Ordenantza honela gelditzen da:

### **HIRI LURREN BALIO GEHIKUNTZAREN GAINEKO ZERGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

#### **I. XEDAPEN OROKORRAK**

*1. artikulua.* Ezarri beharreko araudia

Udal honek Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko zerga ezarri eta eskatu du, indarreko ordenantzaren arabera eta Gipuzkoako Toki Ogasunak arautzeari buruzko uztailaren 5eko 11/1989 Foru Arauan eta Zerga honi buruzko 16/1989 Foru Arauan aurreikusitakoarekin bat etorrita.

*2. artikulua.* Lurralde-eremua.

Ordenantza honako udalerrri osoan ezarri da: Segura.

#### **II. ZERGAGAIA**

*3. artikulua.* Zergagaia

1. Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zerga zuzeneko zerga bat da, eta hiri-lurren balio-gehikuntza zergapetzen du, lursail horien jabetza edozein tituluren bidez eskualdatzearen ondorioz, edo jabaria mugatzen duen edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzearen ondorioz.

2. Ondorio horietarako, honako hauek hartuko dira hiri-lurtzat:



**SEGURAKO UDALA**

- a) Hirigintza arloko plangintzak hirikotzat, urbanizatutzat edo horien baliokidetzat sailkatzen edo definitzen dituenak.
- b) Lurzoru urbanizagarritzat jotzen diren lursailak, edo lurralde eta hirigintza arloko antolamendurako tresnek lurzoru urbanizatuaren egoeran sartzea aurreikusi edo horretarako aukera eman dutenak, betiere sektore edo eremu espazial mugatuetan sartuta badaude. Aurrekoez gain, horrelako izaera duten gainerako lurzoruak barne hartzen ditu, horiek garatzeko zehaztapenak ezartzen dituen hirigintza arloko tresna onartzen den unetik aurrera.
- c) Nekazaritza-legerian xedatutakoaren aurka zatikatzen diren lurrak, betiere zatikatze horrek nekazaritza-erabilera indargabetzen badu, eta horrek ez badu landa-izaera aldatzen Ondasun Higiezinaren gaineko Zergakoak ez diren beste ondorio batzuetarako.

### **III. APLIKAZIO EREMUTIK KANPO**

#### **4. artikulua.** Zergari lotuta ez daudenak

Honako hauek ez dira zerga honen pean egongo:

- 1. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako landa-lurren balio-gehikuntzak. Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren ondorioetarako hirikotzat jo behar diren lursailek izango duten balio-gehikuntzaren mende egongo da, katastroan edo haren erroldan halakotzat jasota egon edo ez.
- 2. Ezkontideek ezkontza-sozietateari ekarritako ondasun eta eskubideen ekarpenak, haien alde eta horien ordainetan beraien alde egiten diren esleipenak eta ezkontideei beren ondasun komunak ordainetan egiten zaizkien eskualdaketak.

Ez da zergari lotuta egongo honako hauen artean ondasun higiezinak eskualdatzen direnean ere: ezkontideak; maiatzaren 7ko 2/2003 Legean xedatutakoaren arabera eraturako izatezko bikotekideak; eta ezkontzaren deuseztasuna, banantzea edo dibortzioa dagoenean epaiak betetzearen ondorioz, seme-alaben alde egindakoak, ezkontzaren araubide ekonomikoa edozein dela ere.

- 3. Lursailen eskualdaketak, horiek eskualdatu eta eskuratu direneko balioen artean gehikuntzarik ez dela egon egiaztatu bada.



## **SEGURAKO UDALA**

Horretarako, balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatu nahi duen erakundeak eskualdaketa aitortu eta eskualdaketa edo eskuraketa dokumentatzen duten tituluak aurkeztu beharko ditu. Ondorio horietarako, erakunde interesduntzat hartuko dira ordenantza honen 6. artikuluan aipatzen direnak.

Balio-gehikuntzarik ez dagoela egiaztatzeko, kasu bakoitzean hurrengo balio hauetako handiena hartuko da kontuan: eragiketa dokumentatzen duen tituluan jasotakoa edo, hala badagokio, Zerga Administrazioak egiaztatutakoa. Gainera, ondorio horietarako, ezin izango dira eragiketa horiek zergapetzen dituzten gastu edo zergak zenbatu.

Lurzorua eta eraikuntza dituen higiezin bat eskualdatzen denean, ondorio hauetarako honako hau hartuko da lurzoruaren baliozat: zergaren sortzapen-datan lurarren katastro-balioa guztizko katastro-balioarekiko ordezkatzeko duen proportzioa aplikatuz ateratzen den balioa. Gainera, proportzio hori eskualdatze-balioari eta, hala badagokio, eskuratze-balioari aplikatuko zaio eta bi hamartarrez adierazi beharko da.

Eskuraketa edo eskualdaketa irabazi-asmorik gabekoa izan bada, aurreko lerroketan ezarritako arauak aplikatuko dira eta, hala badagokio, konparatzeko lehenago aipatutako bi baloreetatik lehena hartuko da kontuan, hau da, Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergan aitortutakoa.

Paragrafo honetan aipatzen diren higiezinaren ondorengo eskualdaketa, lursailen balio-gehikuntza agerian jarri den urte kopurua zenbatzeko, ez da kontuan hartuko eskuratu aurreko aldia. Paragrafo honetan xedatutakoa ez da aplikatuko artikuluko honetako 2. paragrafoko b) eta c) idatz-zatietan xedatutakoaren arabera lotuta ez dauden ondasun higiezinaren ekarpen edo eskualdaketa.

4. Sozietateen gaineko Zergari buruzko 2/2014 Foru Arauaren VI. tituluko VII. kapituluaren araututako araubide berezia aplikatu behar zaien eragiketetatik eratorritako hiri-lurra eskualdatzen direnean, foru-arau horren 111. artikuluan aurreikusitakoaren babesean ekarritako lursailen buruzkoak izan ezik, jarduera-adar batean integratuta ez daudenean.

## **IV. SALBUESPENAK**

### **5. artikulua.** Salbuespenak



## **SEGURAKO UDALA**

1. Zerga honetatik salbuetsita daude egintza hauen ondorioz agertzen diren balio-gehikuntzak:

a) Zortasun-eskubideen sorrera eta eskualdatzea.

b) Ondasun Higiezinaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 12/1989 Foru Arauaren 4.2)e) artikuluan aurreikusitako salbuespena ezartzearen ondorio diren ondasunen eskualdaketak, horien jabeek edo eskubide errealeen titularrek higiezin horiek iraunarazteko, berroneratzeko edo eraberritzeko obrak beren kargura egin dituztela egiaztatzen dutenean.

Salbuespen hori eraginkorra izan dadin, kontserbatzeko, hobetzeko edo birgaitzeko obrei udal-lizentzia eman beharko zaie. Era berean, aipatutako obrak besterentzearen aurreko bi urteetan egin beharko dira.

Ondorio horietarako, kontserbazio-, hobekuntza- edo birgaitze-obratzat hartuko dira eraikinak berreraikitzea helburu dutenak, egiturak, fatxadak edo estalkiak eta antzeko beste batzuk sendotuz eta tratatuz, baldin eta obra horien kostu globala katastroko balioaren % 75 baino handiagoa bada.

2. Era berean, dagozkion balio-gehikuntzak salbuetsita egongo dira, hura ordaintzeko betebeharra honako erakunde hauei dagokienean:

a) Estatua, Euskal Autonomia Erkidegoa, Gipuzkoako Foru Aldundia, Estatuko erakunde autonomoak eta lurralde-administrazio horietako antzeko izaera duten zuzenbide publikoko erakundeak.

b) Udal hau eta gainerako toki-erakundeak (udalerrriaren barrukoak zein udalerrri bera kide dutenak), udalaren baitako zuzenbide publikoko erakundeekin batera, horiek aipatutako Administrazio Publikoen antzeko izaera dutenean.

c) Ongintzazko edo irakaskuntza arloko ongintzazko erakundeak.

d) Gizarte Segurantzaren erakunde kudeatzaileak eta Gizarte Aurreikuspeneko Mutualitateak, indarrean dagoen legeriaren arabera.

e) Nazioarteko itun edo hitzarmenetan salbuespena aitortuta duten erakundeak.

f) Administrazio-emakida itzulgarrien titularrak, horiei atxikitako lursailei dagokienez.



**SEGURAKO UDALA**

g) Gurutze Gorria eta erregelamendu bidez zehaztutako antzeko beste erakunde batzuk.

h) Irabazi-asmorik gabeko erakunde batek zerga hori ordaintzeko legezko betebeharra duenean, irabazi-asmorik gabeko erakundeen zerga-araubideari eta mezenasgoaren zerga-pizgarriari buruzko apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 4. artikuluan xedatutakoaren arabera.

Lurrak eskualdatzen badira edo horien gaineko jabaria mugatzen duten gozamen-eskubide errealak eratzten badira eta irabazi-asmorik gabeko erakunde batek kostu bidez egiten baditu, zerga horren salbuespena egiteko, lursail horiek Ondasun Higiezinaren gaineko Zergan salbuespena aplikatzeko ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Era berean, salbuespen hori aplikatzeko, irabazi-asmorik gabeko erakundeek apirilaren 7ko 3/2004 Foru Arauaren 16. artikulua 1. paragrafoan araututako aukera baliatu dutela Udalari jakinaraztea eta Foru Arau horren II. tituluan jasotako zerga-araubide bereziari buruzko baldintza eta balizkoak betetzea ezinbestekoa izango da.

## **V. SUBJEKTU PASIBOAK**

*6. artikulua.* Subjektu pasiboa

1. Honako hauek dira zergaren subjektu pasiboak, zergadun gisa:

a) Lursailen eskualdaketetan edo irabazpidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskuratzen dutenak (pertsone fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamena gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen zaien pertsonak.

b) Lursailen eskualdaketetan edo ordainbidezko jabariak mugatzen duten gozamen-eskubide errealen eraketan edo eskualdaketan, lursaila eskualdatzen dutenak (pertsone fisiko zein juridikoak edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35.3 artikuluan aipatzen diren erakundeak edo testamentu-ahalmenaren bidezko gozamena gauzatu gabeko jaraunspenak) edo dagokion eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duten pertsonak.

2. Aurreko paragrafoaren b) letran aipatutakoetan, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko dira Foru Zerga Arau Orokorreko 35.3 artikuluan aipatzen den pertsona



## SEGURAKO UDALA

fisiko zein juridikoak edo erakundeak, bai eta testamentu-ahalmena gauzatu zain dagoen jaraunspenak ere, baldin eta lursaila eskuratzen badute edo dagokion eskubide erreala haien alde eratu edo eskualdatu bazaie, zergaduna Espainian bizi ez den pertsona fisikoa denean eta hura ordezkaria izendatzera behartuta ez badago, edo ordezkaria izendatzera behartuta egon arren, zerga honen bidez ordezkatzeko duenaren zerga-zorra ordaintzeko betebeharrari modu solidarioan erantzun ez badio.

3. Ohiko etxebizitzaren hipoteka-exekuzioaren ondorioz lursailak eskualdatzen direnean, zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat hartuko da lurra eskuratzen duen pertsona fisiko edo juridikoa, edo Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 35. artikuluan 3. paragrafoan aipatzen den erakundea.

Aurreko paragrafoan aurreikusitako kasuetan, ordezkariak ezingo dio zergadunari eskatu ordaindutako zerga-betebeharraren zenbatekoa.

Paragrafo honetan aurreikusitako ondorioetarako, ohiko etxebizitzat hartuko da Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari buruzko 3/2014 Foru Arauaren 87. artikuluan hala definitutakoa.

4. Baliabiderik gabeko hipoteka-zordunak babesteko premiazko neurriei buruzko martxoaren 9ko 6/2012 Errege Lege Dekretuaren 2. artikuluan aplikazio-eremuaren barruan dauden zordunek egindako eskualdaketetan, arau horren eranskinaren 3. paragrafoan aurreikusitako etxebizitza ordainean ematearen ondorioz, higiezina eskuratzen duen erakundea hartuko da zergadunaren ordezkari subjektu pasibotzat. Hala, ordezkariak ezin izango dio zergadunari ordaindu beharreko betebeharraren zenbatekoa eskatu.

## VI. ZERGA OINARRIA

### 7. artikulua. Zerga-oinarria zehaztea

1. Zerga honen zerga oinarria lurren balio gehikuntza da, hain zuzen ere, sortzapenaren unean agerian jarri eta gehienez ere hogeitau urteko epean izandakoa. Haren zenbatekoa eragiketa honen emaitza izango da, artikulua honen 4. apartatuan xedatutakoa eragotzi gabe: sortzapenaren unean lurrarri kalkulatu zaion balioa bider 3. apartatuaren arabera sorreraldiari dagokion koefizientea.





**SEGURAKO UDALA**

2. Sortzapenaren unean lurak zer balio duen zehazteko, erregela hauek aplikatuko dira:

a) Lurren eskualdaketetan, sortzapenaren unean duten balioa ondasun higiezinaren gaineko zergaren ondorioetarako une horretantxe dutena izango da.

Hala ere, balio hori balio ponentzia baten ondorio bada, eta ponentzia horretan ez badira islatzen hura onartu ondoren onartu diren planeamendu aldaketak, zilegi izango da zerga honen behin-behineko likidazio bat egitea balio ponentzia horretatik abiatuta. Horrelako kasuetan, behin betiko likidazioan aplikatuko den balioa kasuan kasuko balio ponentziaren aldaketan edo balioen berrikuspenean xedatutakoaren arabera ateratzen dena izango da, betiere sortzapen data erreferentzia hartuta. Data hori ez badator bat katastro balio berrien eragin datarekin, balio horiek zuzenduko dira Gipuzkoako Lurralde Historikoko aurrekontuen foru arauetan ezartzen diren eguneratze koefizienteak aplikatuta.

Gertatzen bada kasuan kasuko lurak, hiri izaerakoa izanik ere, zergaren sortzapenaren unean oraindik ez daukala zehaztuta inolako katastro baliorik, udalak katastro balio hori finkatzen denean egingo du likidazioa, sortzapenaren unean dagoen balioa aintzat hartuta.

Aurreko paragrafoetan adierazitako balioaren gainean, gehienez ere, %15eko koefiziente murriztailea ezartzen da, haren eguneratze maila haztatzeko.

b) Jabaria mugatzen duten gozamen eskubide errealek eraketan eta eskualdaketan, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aplikatuko dira kontuan izanik aurreko a) paragrafoan definitutako balioetatik zer zati dagokien aipatu diren eskubideei. Eskubide horien balioa ondare eskualdaketan eta egintza juridiko dokumentatuen gaineko zergaren ondorioetarako ezarritako arauak aplikatuz kalkulatu da.

c) Eraikin edo lursail baten gainean solairu bat edo gehiago jasotzeko edo lur azpian eraikitzeko eskubidearen eraketan edo eskualdaketan —lurrazal eskubide erreal bat izan gabe ere—, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak aurreko a) paragrafoan definitutako balioaren gainean aplikatuko dira, baina, kasu honetan, kontuan izanik balio horretatik zer zati dagokion eskualdaketaren eskrituran finkatutako proportzionaltasun moduluari edo, halakorik ezean, lur gainean edo lur azpian eraikitako diren solairuen azalera edo bolumenaren eta eraikitako azalera edo bolumen osoaren arteko proportzioari horiek behin eraiki ondoren.



**SEGURAKO UDALA**

d) Nahitaezko desjabetzeen kasuan, artikuluko honen 3. apartatuan aipatutako urteko portzentajeak lurraren balio justuaren zatiari aplikatuko zaizkio, salbu eta aurreko 2. apartatuko a) paragrafoan definitutako balioa txikiagoa bada, kasu horretan, azken hori hartuko baita, ez balio justua.

3. Balio gehikuntzaren sorrerakoa gehikuntza hori agerian jartzeko igarotako urte kopurua izango da.

Eragiketak zergari lotuta ez dauden kasuetan, eta, betiere, foru arau bidez besterik esaten ez bada, lurraren geroko eskualdaketa batean balio gehikuntzaren sorrerakoa zenbatekoa izan den kalkulatzeko, eskurapen datatzat zergaren azken sortzapena gertatu zen data hartuko da aurreko paragrafoan xedatutakoaren ondorioetarako.

Igarotako urte kopuruaren konputuan urte osoak hartuko dira, hau da, urte zatikiak aintzat hartu gabe. Sorrerakoa urtebetetik beherakoa bada, urteko koefizientea hainbanatuko da hilabete osoen kopurua kontuan hartuta, hau da, hilabete zatikiak aintzat hartu gabe.

Sortzapenaren unean lurra duen balioari (aurreko apartatuetan xedatu da nola kalkulatu balio hori) balio gehikuntzaren sorrerakoa bakoitzerako indarrean dagoen gehieneko koefizientea aplikatuko zaio, Hiri Lurren Balio Gehikuntzaren gaineko Zergari buruzko uztailaren 5eko 16/1989 Foru Arauaren 4.3 artikulua ezarritakoari jarraituz.

Aipatutako xedapenean aurreikusitako gehieneko koefizienteak eguneratuz gero, alkateari ahalmena ematen zaio aplikagarriak diren koefiziente berriak ebazpen bidez argitaratzeko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Segurako Udaleko web orrian eta Segurako iragarkitaulan.

4. Subjektu pasiboak eskaturik, zergaren foru arauaren 4. artikuluko 3. apartatuan ezarritako prozedurari jarraituz, egiaztatzen bada balio gehikuntzaren zenbatekoa txikiagoa dela artikuluko honetako aurreko apartatuetan xedatutakoaren arabera zehaztutako zerga oinarriaren zenbatekoa baino, balio gehikuntza horren zenbatekoa hartuko da zerga oinarritzat.

## **VII. KARGA TASA, KUOTA ETA HOBARIAK**

### **8. Artikulua. Karga-tasa**



**SEGURAKO UDALA**

Aplikatu beharreko karga-tasa kasu bakoitzean dagokiona izango da, I. eranskinaren arabera.

#### *9. Artikulua.* Kuota eta hobariak

1. Zerga honen kuota zerga-oinarriari dagokion karga-tasa aplikatzearen emaitza izango da.
2. Zergaren kuota likidoa kuota osoari dagokion hobaria aplikatzearen emaitza izango da, hala badagokio.

### **VIII. SORTZAPENA**

#### *10. Artikulua.* Sortzapena

##### 1. Honako kasu hauetan sortzen da zerga:

- a) Lurraren jabetza eskualdatzen denean, kostuen bidez edo doan, bizien artean edo heriotzaren ondorioz, eskualdaketaren egunean.
- b) Jabaria mugatzeko edozein gozamen-eskubide erreal eratu edo eskualdatzen denean, eraketa edo eskualdaketa egiten den egunean.

##### 2. Aurretik xedatutakoaren ondorioetarako, honako hauek hartuko dira eskualdatze-datatzat:

- a) Bizien arteko egintza edo kontratuetan, agiri publikoa egiletsi denean eta, agiri pribatuetan, agiri horiek erregistro publikoan sartu edo inskribatu direnean edo, bere lanbidea dela eta, funtzionario publiko bati eman zaionean.
- b) Heriotza-ziozko eskualdaketetan, kausatzailea hil deneko data.

3. Baldin eta, epai edo administrazio-ebazpen irmo baten bidez, lurren eskualdaketa edo lurra edukitzeko eskubide erreala eragiten duen egintza edo kontratua deuseztaturik, hutsaldurik edo suntsiarazirik dagoela adierazten edo aitortzen bada, subjektu pasiboak aurretik ordaindutako zerga berari itzultzeko eskubidea izango du. Beti ere egintza edo kontratu hori irabazteko ondorerik gabekoa bada eta zergaren itzulketa ebazpen irmoa ematen denetik bost urte igaro baino lehen eskatu bada. Interesatuek elkarri Kode Zibilaren 1.295. artikuluko itzulketak egin beharra dutela bidezkotu ezean, irabazteko asmoa dagoela



## SEGURAKO UDALA

ulertuko da. Hutsalketa edo suntsiarazpena zergapeko subjektu pasiboak eginbeharrak ez betetzearen ondorioz adierazi bada, ez da itzulketarik izango, nahiz eta egintza edo kontratua irabazteko ondorerik gabekoa izan.

4. Alderdi kontratatzaileek elkarren adostasunez kontratua efekturik gabe utzi badute, ez da ordaindutako zerga itzuliko eta egintza zergapeko egintza berritzat joko da. Elkarren adostasuntzat hartuko dira bai adiskidetze-ekitaldian adostutakoa eta bai eskariari amore-emate hutsa.

5. Egintzek edo kontratuek baldintzaren bat dutenean, Kode Zibileko preskripzioen arabera kalifikatuko dira. Baldintza etengarria bada, zerga ez da likidatuko hura bete arte. Baldintza suntsiarazlea bada, zerga erreserba gisa eskatuko da, aurreko ataleko arauari jarraituz, dagokion itzulketa egiteko baldintza betetzen denean.

6. Testamentu-ahalmenetan, pertsona jakin batek jarauntsiz ondasunen gozamenerako eskubidea bizi artean duenean, gozamen horren likidazio bakarra egingo da, oinordetza ireki deneko sortze-datarekin, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera eta biziarteko gozamenen arauak aplikatuz.

Testamentu-ahalmenetan, gozamena botere hori erabiltzean azkentzen bada, gozamen horren bi likidazio egingo dira, gozamendunak kausatzailearekin duen ahaidetasunaren arabera:

a) Lehen likidazioa, heriotza gertatzen denean, biziarteko gozamenaren arauak aplikatuta.

Hala ere, testamentu-ahalmena gauzatzeko epe jakin bat badu, lehen likidazio hori aldi baterako gozamenaren arauen arabera egingo da, ahalmen hori egikaritzeko ezarritako gehieneko epean.

b) Beste likidazio bat, testamentu-ahalmena erabiltzean, aldi baterako gozamenaren arauak erreparatuta, kausatzailea hil zenetik igarotako aldiarengatik, aurrekoagatik ordaindutakoa konturako sarreratzat hartuta, eta aldea gozamendunari itzuliko zaio, haren aldekoa bada.

Eta b) hizkiari dagokion likidazioa oinordekoena egiten den unean egin beharko da, testamentu-ahalmenaren oinordekoak direla adierazten badu, edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik.



**SEGURAKO UDALA**

7. Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, xedapen-egintzen ondorioz testamentu-ahalmena egikaritzeko dauden jaraunspenek eragindako lursailen eskualdaketetan, eskualdatze horiek Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren sortzapena ez badakarte, Hiri-lurren Balio Gehikuntzaren gaineko 16/1989 Zergaren xedapen orokorrak aplikatuko dira, honako berezitasun hauekin:

a) Oinordetza Zergaren subjektu pasiboa izango da testamentu-ahalmena egikaritzetik geratzen dena, eta zerga eskualdaketa gertatzen den unean sortuko da.

b) Zerga-kuota zehazteko, likidazio bat egingo da, eskualdaketaren unean sortuko dena, kausatzaileak lurra erosi zuenetik igarotako denboragatik. Gainera, diru-sarrera gisa eman zena kontuan hartuko da 6. paragrafoan xedatutakoaren arabera egindako likidazioan ordaindutakoa.

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legean xedatutakoaren araberrako xedapen-egintzen ondorioz, testamentu-ahalmena egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez eskuratutako lursailak eskualdatzen direnean, likidazio bat egingo da, eta eskualdaketaren unean sortuko da, jaraunspenaren bidez lurra eskuratu zenetik igarotako denboragatik.

c) Testamentu-ahalmena modu ezeztazinean erabiltzen denean, edo hura azkentzeko arrazoietakoa bat gertatzen denean, jaraunspen bidez eskuratuak izan arren, testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden lurak eskualdatzen badira, ekainaren 25eko 5/2015 Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko Legeak adierazi duen bezala, likidazio bakarra igorriko zaio gozamen-dunari, aldi baterako edo biziarteko gozamenaren arauen bidez. Lursailaren izaeraren arabera, egikaritu zain dagoen jaraunspenaren bitartez lursaila eskuratu zuenetik testamentu-ahalmena gauzatu arte igarotako denboragatik. Hobaria testamentu-ahalmena erabiliz azkentzen den kasuetan, likidazio bat igorriko zaio gozamen-dunari aldi baterako gozamenaren arauen bidez, lurra testamentu-ahalmena egikaritzeko dagoen jaraunspenak eskuratu zuenetik igarotako denboragatik. Likidazio hori jaraun-sleei dagozkienak egitean egin beharko da, baldin eta testamentu-ahalmena edo gozamen-ahalmena erabiltzeagatik edo hura azkentzeko gainerako arrazoiengatik jaraun-sleak badira.

## **IX. ZERGA KUDEATZEA**



**SEGURAKO UDALA**

### 11. Artikulua. Zerga kudeatzeko sistema

Zerga kudeatzeko Udal honek aitorten-sistema ezartzen du, honako atal hauetan xedatutakoaren arabera:

1. Subjektu pasiboek aitortzea aurkeztu behar diote Udalari, beronek ezarritako ereduaren arabera egina. Eredu horretan likidazioa egiteko behar diren zerga-elementuak eta gainerako datuak agertuko dira.

Adierazpenarekin batera, agiri hauek aurkeztu beharko dira:

a) Bizien arteko egintzei buruzko eskualdaketak: zergak ordaintzeko betebeharra sortu duen egintza edo kontratua formalizatu duen dokumentuaren kopia, publikoa zein pribatua.

b) Heriotzaren kausazko eskualdaketak, jaraunspena esleitu duen eskrituraren kopia edo halakorik ezean:

- Zatiketa-koaderno pribatua, halakorik balego.
- Azken borondatearen ziurtagiria.
- Testamentua edo, hala badagokio, jaraunsleen abintestatuko adierazpena.

c) Eskualdatutako higiezinaren eskuraketaren tituluen kopia.

Bi eskualdatze-motetarako eta, gainera, dohainik bada, ondasunen balorazioa jasotzen duen Oinordetza eta Dohaintzen gaineko Zergaren autolikidazioaren/aitorpenaren kopia.

2. Ordenantza honetako 4. artikuluko 3. paragrafoan xedatutakoa aplikatzearen ondorioz loturarik ez badago, beren beregi jasoko da hori adierazpenean.

3. Subjektu pasiboak ordenantza honen 7. artikulua 4. atalean xedatutakoarekin bat etorritik erabakitzen badu zerga-oinarria, beren beregi jasoko da aitortzean. Hautatutako aukera ezin izango da aldatu zerga-administrazioak zerga-betebeharraren elementu guztiak edo batzuk aintzatesteko, erregularizatzeko, egiaztatzeko, ikuskatzeko, segurtatzeko edo likidatzeko edozein ekintza egin badu, zergapekoak horren berri formala izanda.



## SEGURAKO UDALA

4. Testamentu-ahalmena egikaritu zain dauden jaraunspenetan, aurreko betebeharrak betetzea horien administratzaileari dagokio. Administratzaileak aitortpena sinatu beharko du eta dagokion zerga-zorra ordaintzeaz arduratuko da.

Era berean, zerga ordaintzearen erantzule subsidiarioa izango da testamentu-ahalmena gauzatu zain duen jaraunspenaren administratzailea.

5. Eskatutako salbuespenak edo hobariak agiri bidez justifikatu beharko dira.

### 12. artikulua. Epeak

Aitortpena honako epe hauetan aurkeztu beharko da, zerga sortu den egunetik zenbatzen hasita:

- a) Bizien arteko egintzak direnean, epea hogeita hamar egun baliodunekoa izango da.
- b) Heriotzagatiko egintzen kasuan, epea sei hilabetekoa izango da, eta urtebetera arte luzatu ahal izango da subjektu pasiboak hala eskatuz gero.

### 13. artikulua. Dokumentazio gehigarria eskatzea

Udalak hogeita hamar eguneko epean zergaren likidazioa gauzatzeko beharrezkotzat jotzen dituen beste agiri batzuk aurkez ditzatela eskatu ahal izango die pertsona edo erakunde interesdunei. Epe hori beste hamabost egunez luzatu ahal izango da, interesdunak hala eskatuta. Gainera, epe horien barruan egindako errekerimenduei erantzuten ez dietenek zerga arloko arau-hausteak egin eta horiei dagozkien zehapenak izango dituzte, dokumentu horiek adierazpena egiaztatzeko beharrezkoak diren heinean. Dokumentu horiek interesdunak bere onerako alegatutako inguruabarrak frogatzeko bidea baino ez badira, errekerimendua ez betetzeak likidazioa egitea ekarriko du, alegatutako eta justifikatu gabeko inguruabarrak alde batera uzteaz gain.

### 14. artikulua. Beste pertsona edo erakunde batzuk jakinarazteko duten betebeharra

11. artikuluan xedatutakoa gorabehera, hurrengo hauek zerga subjektu pasiboen epe berberetan ordaindu dela jakinarazi beharko diote Udal Administrazioari:



## SEGURAKO UDALA

- a) Ordenantza Fiskal honetako 6. artikularen a) letran jasotako kasuetan, bizirik daudenen arteko negozio juridikoan eman badira, emalea edo eskubide erreala eratzten edo eskualdatzen duen pertsona.
- b) Aipatutako 6. artikuluko b) letran jasotako kasuetan, eskuratzalea edo eskubide erreala eratu edo eskualdatu zaion pertsona.

### *15. artikulua.* Notarioen betebeharrak

Notarioek nahitaez bidali beharko diote udalari, hiruhileko natural bakoitzeko lehenengo hamabostaldian, aurreko hiruhileko naturalean baimendutako agiri guztiak jasotzen dituen zerrenda edo aurkibidea. Zerrenda edo aurkibide horrek, nolana ere, esku hartzen duten alderdien datuak jaso beharko ditu: izen-abizenak, NAN-zenbakia eta helbidea. Dokumentu horietan, zerga hau udalerrian ordaindu dela agerian uzten duten egitate, egintza edo negozio juridikoak azalduko dira, azken borondatezko egintzak izan ezik. Halaber, epe beraren barruan, sinadurak ezagutzeko edo legitimatzeko asmoz aurkeztu zaizkien dokumentu pribatuen zerrenda bidali beharko dute. Dokumentu horietan egitate, egintza edo negozio juridiko berberak jasota daude. Artikulu honetan ezarritakoak ez du baztertuko Gipuzkoako Zergen Foru Arau Orokorrean ezarritako lankidetzarako betebeharrak orokorra.

### *16. artikulua.* Aitorpena aurkezteko errekerimendua

1. Deklaratu ez diren zergapeko egitateen berri duenean udalak, 12. artikuluan adierazitako epeen barruan, deklarazio hori egiteko errekerimendua egingo die interesdunei. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.
2. Lehen aipatutako errekerimenduak egin ondoren, interesdunek ez badute kasuan kasuko aitorpena aurkezten, Udalak espedientea ofizioz izapidetuko du, bere esku dauden datuekin, eta dagozkion likidazioa egingo du eta, hala badagokio, sarrera-epeak eta dagozkion errekurtsoen adierazpena adieraziko ditu. Horrek ez du eragotziko zerga arloan egindako arau-hausteengatik dagozkion zehapenak jasotzea.

## **X. AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta indarrean jarraituko du aldatzea edo indargabetzea erabaki arte.





**SEGURAKO UDALA**

## **I. ERANSKINA. KARGA TASAK.**

1. Zerga-oinarriari aplikatuko zaion karga-tasa ehuneko 20koa izango da.

### **1.4.- ERAIKUNTZA, INSTALAZIO ETA OBREN GAINEN KARGA ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA FISKALA**

%2,6ko igoera aplikatzea onartu da.

ERANSKINA honela geratu da:

<u>ERAIKUNTZA, INSTALAZIO EDO OBRA MOTA</u>	<b>OBRAREN KOSTUAREN GAINEN %</b>
A) Tarifa orokorra	3,44
B) Babes sozialeko etxebizitzak	2,30
C) Industria-izaerako lurzoruko edo eraikinetako obrak	4,01

### **1.5.- JARDUERA EKONOMIKOEN GAINEN KARGA**

%2,6ko igoera aplikatzea onartu da.

ERANSKINA honela geratu da:

Coeficiente	2,15
-------------	------

## **2.- ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIKO ETA JARDUERAK EGITEAGATIKO TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

%2,6ko igoera aplikatzea onartu da ondorengo eranskinetan:

2.3. ERANSKINA: Hirigintzako baimenak.

2.3.1. LIZENTZIAK:

2.3.1.1. Hirigintza-plangintzako espedienteak.

	<b>KUOTA</b>
Arau subsidiarioen aldaketa puntuala	2.893,57
Bateragarritze-plana eta haren aldaketa	2.893,57



## SEGURAKO UDALA

Sektorekatze-plana eta haren aldaketa	2.660,87
Hirigintza-espeditentek eta horien aldaketa izapidetzea (plan partzialak eta bereziak)	
S<0,2Ha	533,52
0,2Ha<S<0,5Ha (gutxienez 520,00 €)	2.400,84
0,5Ha<S<1Ha (gutxienez 1.165,00 €)	2.400,84
1Ha<S<2Ha (gutxienez 2.095,00 €)	1.944,15
2Ha<S<5Ha (gutxienez 3.772,00 €)	1.749,95
5Ha<S<10Ha (gutxienez 8.487,00 €)	1.574,95
S<10Ha (gutxienez 15.272,00 €)	1.417,03
Xehetasun-azterketak izapidetzea eta horiek aldatzea	2.083,67
Plangintzako hirigintza-hitza	2.338,08

### 2.3.1.2. Hirigintza-kudeaketako espeditentek.

	KUOTA
Urbanizatzeko jarduketa-programa eta haren aldaketa	1.614,70
Kudeaketako hirigintza-hitza	1.415,61
Birpartzelazio edo Lankidetzaren Proiektua eta aldaketa	2.929,02
Desjabetze-proiektua. Konpentsazio Batzordearen eskararak, jabetzaren funtzio soziala edo plangintza gauzatzeko epeak ez betetzeak edo partikular batek egindako eskararak eragindako desjabetzei aplikatuko zaie tasa, indarrean dagoen hirigintza-legeriak aurreikusten dituen legezko kasuren batean egoteagatik.	
6.000,00 € arteko justu prezioa	259,82
6.000,01 €-tik 18.000,00 €-ra arteko justu prezioa	476,86
18.000,01€-tik 60.100,00 €-ra arteko justu prezioa	780,49
60.100,01€-tik 150.250,00 €-ra arteko justu prezioa	1.170,76
150.250,01 €-tik 300.500,00 €-ra arteko justu prezioa	1.603,76
300.500,01 €-tik 601.000,00 €-ra arteko justu prezioa	2.080,63
600.000,01 €-tik aurrera	2.398,17
600.000,00 €-ko frakzio bakoitzeko, 600.000,01 €-tik aurrera, aurreko eskalaren arabera ordainduko da zerga	
Irisgarritasun desjabetze-espeditentea	1.255,85
Urbanizazio-proiektua eta haren aldaketa	Gauzatze
	materialaren
	aurrekontuaren
	% 0,5 (gutxienez
	1.492,96 €)
Urbanizazio-kuotak kobratzea	1.600,56



SEGURAKO UDALA

Urbanizazio-obra osagarrien proiektua

796,52

### 2.3.1.3. Hirigintzako disziplinako espedienteak.

Batearazteko agindua:	KUOTA
600,00 €-ra arte	48,02
600,01 €-tik 18.000,00 €-ra arte	85,36
18.000,01 €-tik 30.000,00 €-ra arte	160,06
30.000,01 €-tik 60.000,00 €-ra arte	213,41
60.000,01 €-tik 150.000,00 €-ra arte	373,46
150.000,01 €-tik 300.000,00 €-ra arte	800,28
300.000,01 €-tik 450.000,00 €-ra arte	1.600,56
450.000,01 €-tik 600.000,00 €-ra arte	2.347,49
600.000,00 € gehiago 600.000,01 €-tik aurrera	2.667,60
600.000,00 €-ko frakzio bakoitzeko 600.000,01 €-tik aurrera, aurreko eskalaren arabera ordainduko da zerga Aurri-espedientea	1.174,78
Eraispenik gabeko berehalako aurri-espedientea	469,92
Berehalako aurri-espedientea, eraispenarekin	939,82

### 2.3.1.4. Eraikuntza obretarako lizentzia: eraikuntza berriak

	KUOTA
120.000,00 €-ra arte	1.118,33
120.000,01 €-tik 600.000,00 €-ra arte	2.236,67
600.000,01 €-tik 2.000.000,00 €-ra arte	3.355,00
2.000.000,01 €-tik gora	8.212,13

### 2.3.1.5. Obra handietarako lizentzia.

	KUOTA
3.000,00 €-ra arte	90,12
3.000,01 €-tik 6.000,00 €-ra arte	132,42
6.000,01 €-tik 60.000,00 €-ra arte	395,62
60.000,01 €-tik 120.000,00 €-ra arte	593,44
120.000,01 €-tik 600.000,00 €-ra arte	2.236,67
600.000,01 €-tik 2.000.000,00 €-ra arte	3.355,00
2.000.000,01 €-tik gora	8.212,13

### 2.3.1.7. Obra txikiak.



**SEGURAKO UDALA**

	<b>KUOTA</b>
3.000,00 €-ra arte	28,08
3.000,01 €-tik 6.000,00 €-ra arte	49,33
6.000,01 €-tik 18.000,00 €-ra arte	114,12
18.000,01 €-tik 30.000,00 €-ra arte	217,59
30.000,01 €-tik 60.000,00 €-ra arte	274,20
60.000,01 €-tik 120.000,00 €-ra arte	548,41
120.000,01 €-tik gora	Obra handien tasak aplikatuko dira

2.3.1.8. Obrak: beste batzuk.

	<b>KUOTA</b>
Titulartasuna aldatzea edo lagatzea	32,73
Eraikuntza berriko obren lizentzia luzatzea	130,92
Obra-lizentziaren luzapena	32,73
Lizentziaren iraungipena	163,65
Txosten teknikoa egin aurreko prozeduran egitez edo zuzenbidez atzera egitea edo iraungitzea: tasaren gaineko %-a	% 30,00 (gutxieneko zenbatekoa 10,00 €)
Txosten teknikoa egin ondoren prozeduran egitez edo zuzenbidez atzera egitea edo iraungitzea: tasaren gaineko %-a	% 60,00 (gutxieneko zenbatekoa 20,00 €)

2.3.1.10. Beste hirigintza espediente batzuk.

	<b>KUOTA</b>
Partzelazioa/Segregazioa	276,91
Garabia, aldamia eta/edo hesia instalatzea	289,99
Antolamenduz kanpoko ziurtagiria	32,73
Hirigintzako kontsulta	96,92
Hirigintza-zedula	113,27

2.3.1.11. Zuhaitzak moztu eta suebakiak ireki.

	<b>KUOTA</b>
Hiri-lurzorua: 3 ud arteko multzoak	67,18
Lurzoru urbanizaezina: 0 eta 5.000 m2 bitarteko lursail trinkoak	67,18
Lurzoru urbanizaezina: 5.001 m2 eta 20.000 m2-ra arteko lursail trinkoak	111,97



**SEGURAKO UDALA**

Lurzoru urbanizaezina: 20.001 m2-tik 100.000 m2-ra arteko lursail trinkoak	111,97
Azpiegituren trazadurei eragiten dietenak: S>2.000 m2 o 100 ml	279,92

2.3.1.12. Zuhaitzak landatzea.

	<b>KUOTA</b>
Hiri-lurzorua: 3 ud arteko multzoak	33,59
Lurzoru urbanizaezina: 0 eta 5.000 m2 bitarteko lursail trinkoak	67,18
Lurzoru urbanizaezina: 5.001 m2 eta 50.000 m2 artekoa	111,97
Lurzoru urbanizaezina: 50.000 m2 baino gehiago	139,97

2.3.1.13. Kartelak eta seinaleak.

	<b>KUOTA</b>
Karteldegri bakoitzeko bide publikotik ikus daitezkeen propaganda-kartelak jartzeko lizentziak	
12 m2 arte	49,88
12 m2-tik 32 m2 arte	88,69
32 m2-tik gora	166,29

2.4. ERANSKINA: Jarduera sailkatuen baimenak.

	<b>KUOTA</b>
A) 4, 5, 6, 13, 14. Industria-jarduerak, tailerrak eta biltegiak:	
100 m2 arte	1.757,88
500 m2 arte	2.053,45
1.000 m2 arte	2.347,68
2.000 m2 arte	2.737,04
2.500 m2 arte	3.066,97
2.500 m2-tik gora	3.695,81
B) Ostalaritza eta jolas-jarduerak:	
15. Diskotekak, dantzalekuak eta antzeko establezimenduak	3.459,01
15. 3. Taldeko pub eta tabernak	1.915,76
16. Ostalaritza eta jatetxeak	2.367,98
16. Joko-aretoak	8.888,08
C) Nekazal ella abeltzaintzako jarduerak:	
17,18. Nekazaritza eta abeltzaintzako ustiategiak	210,98
D) Beste jarduera batzuk:	



**SEGURAKO UDALA**

300 m2 arte 300 m2-tik aurrera, 10 m2-ko 3,00 € gehitzen da  Titulartasun aldaketak	783,15  Aurretik ezarritako tarifa % 50ean mu- rriztuko da
--	--

**2.5. ERANSKINA:** Jarduera sailkatuen aurretiazko jakinarazpena.

	<b>KUOTA</b>
Jardueraren edo instalazioaren funtzionamendua egiaztatzea	
2. Industriak, tailerrak eta biltegiak	
100 m2-ra arte	877,33
300 m2-ra arte	1.017,71
500 m2-ra arte	1.160,18
1.000 m2-ra arte	1.322,61
2.000 m2-ra arte	1.507,78
2.500 m2-ra arte	1.718,86
2.500 m2-tik gora	1.959,52
3. Dendak	460,04
5. Garajeak	460,05
6, 7, 13. Zerbitzuak	659,42
8. Jatetxeak eta elkarte gastronomikoak	2.048,79
8.2. Taldeko kafetegia eta tabernak	1.757,88
8. Kafetegiak, dastatzea, izozki-dendak eta abar (alkohol-sal- mentarik gabe)	1.302,89
8. Bestelakoak	1.302,89
Nekazal eta abeltzaintzako jarduerak: 20 UGM arte	210,98
Titulartasun-aldaketetan tarifa % 50 murriztuko da Kuota kalkulatzeko establezimendua handitu behar denean, za- baltze-metroei dagokiena hartuko da azalera-zatitzat	

**2.6. ERANSKINA:** Auto-taxi eta gainerako akura ibilgailuen lizentziak eta baimenak.

<b>TASA:</b>	75,73
--------------	-------

**2.7. ERANSKINA:** Hondakinen bilketa eta ezabaketa.

Eranskin honetan % 5eko igoera aplikatzea onartu da.

<b>TARIFAK:</b>	<b>KUOTA</b>
Okupatutako etxebizitzak	206,99
Hutsik dauden etxebizitzak	144,54



**SEGURAKO UDALA**

Baserriak	165,97
Tabernak	503,53
Merkataritza	251,75
Jatetxeak	691,87
Tailerrak: 20 langile arte	553,85
Tailerrak: 20 langile baino gehiago	721,70
San Juan Egoitza	1.044,03

Hobariak:

Bizikidetz-unita- teko pertsona kopurua	HOBARIA		
	90%	75%	50%
1	< 15.400 €	15.400 € - 17.500 €	17.501 € - 21.000 €
2	< 20.160 €	20.160 € - 22.820 €	22.821 € - 27.440 €
3	< 21.980 €	21.980 € - 25.060 €	25.601 € - 30.101 €
4 edo gehiago	< 23.660 €	23.660 € - 27.020 €	27.021 € - 32.340 €

Aurkeztu beharreko dokumentazioa: Ogasunak ematen duen informazio fiskala.

2.8. ERANSKINA: Hilerria.

<u>EHORZKETAK:</u>	<u>KUOTA</u>
Nitxoetan	297,95
Hobian	353,82
Hezurtegietan eta kolunbarioetan	136,56
Panteoian	453,13
<u>GORPUAK LURPETIK</u>	
<u>ATERATZEA:</u>	
Nitxoetan	297,95
Hobian	353,82
Hezurtegietan eta kolunbarioetan	136,56
Panteoian (baldako)	273,12

2.9. ERANSKINA: Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia.

<u>ARRISKUTSUAK IZAN DAITEZKEEN ANIMALIAK</u> <u>EDUKITZEKO LIZENTZIA</u>	<u>KUOTA</u>
--	--------------



**SEGURAKO UDALA**

A) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia ematea	25,51
B) Arriskutsuak izan daitezkeen animaliak edukitzeko lizentzia berritzea	25,51
C) Arriskutsuak izan daitezkeen animalien erregistroan izena ematea	25,51

**2.12. ERANSKINA:** Turismo bulegoko bisita gidatuak.

<u>TURISMO BULEGOKO BISITA</u> <u>GIDATUAK:</u>	<b>KUOTA</b>
<b>A) BANAKAKO PREZIOAK</b>	
Ardixarra etxea	2,00
Eliza	2,00
Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba)	5,00
Gune historikoa eta eliza	6,50
Segura ezagutzen liburuxka	3,00
Hariz hari sorgindu hadi! pasaportea	3,00
<b>B) TALDEKO PREZIOAK (10 pertsona baino gehiago)</b>	
Ardixarra etxea	1,80
Eliza	1,80
Ardixarra eta eliza	3,50
Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba)	4,50
Gune historikoa eta eliza	5,50
Hariz hari sorgindu hadi!	4,50
<b>C) IKASTETXEAK (10 pertsona baino gehiago)</b>	
Ardixarra etxea	1,50
Gune historikoa (Ardixarra, herria eta karkaba)	4,00
Gune historikoa eta eliza	5,00
Ardixarra etxea eta Segura ezagutzen jokia	4,00
Ardixarra etxea eta Segurako Oka-Quiz jokia	4,00
Hariz hari sorgindu hadi! pasaportea	5,00





SEGURAKO UDALA

### **3.- TOKIKO JABARI PUBLIKOAREN ERABILERA PRIBATIBOAGATIK EDO APROBETXAMENDU BEREZIAGATIK TASAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA**

%2,6ko igoera aplikatzea onartu da eta ondorengo eranskinak horrela gelditzen dira:

**3.1. ERANSKINA:** Ibilgailuen sarbidea espaloitik eta aparkaleku erreserba bide publikoan.

3.1.1. IBI-ak.

<b><u>IBI IRAUNKORRETARAKO JABARI PUBLIKOAREN ERRESERBA:</u></b>	<b>KUOTA</b>
A) 1. Instalazioa	94,15
B) Urteko kuotak:	
Ibi indibidualak	57,61
Ibi kolektiboak	11,58
Tailerrak eta antzekoak	93,52

**3.2. ERANSKINA:** Azoka.

Eranskin hau kentzea onartu da.

<b><u>AZOKA POSTUAK:</u></b>	<b>KUOTA</b>
Astean behin joaten direnentzat (egun eta postu bakoitzeko)	9,87
Hamabost egunean behin joaten direnentzat (egun eta postu bakoitzeko)	12,11

**3.3. ERANSKINA:** Herriko jaietan postuak.

<b><u>HERRIKO JAIETAN BARRAKA ETA POSTUEKIN LURZORUAREN ERABILERA:</u></b>	<b>KUOTA</b>
A) Taberna, kafetegi eta antzekoak (eguneko)	114,75
B) Pastelak, gozokiak, txurrotegi, txokolategi, fruitu lehorrak, patata frijituak, jostailuak, bitxikeriak eta antzeko postuak (eguneko)	
- 15 metro karratu edo gutxiago	26,68
- 15 metro karratu baino gehiago	57,37
C) Garabi edo bestelakoak (m2/eguneko)	0,18
D) Tiro eta joku postuak, zabuak, tresna hegalariak, tiobiboak, zaldiko-maldikoak, eta mugitzen diren bestelako aparatuak, auto-txokeak, ikuskizun, zirko eta antzekoak.	
- 25 metro karratu edo gutxiago	34,42
- 25 metro karratu baino gehiago	57,37



## SEGURAKO UDALA

**3.4. ERANSKINA:** Udal bide publikoetako eta jabari publikoko gainerako lursailletako lurzorua, hegalkinare eta zorupearen erabilera pribatiboa edo aprobetxamendu berezia.

<b>TERRAZAK:</b>	<b>KUOTA</b>
Urteko kuota (32 m <sup>2</sup> -ko)	239,47
<b>KONTAINERRAK:</b>	
Eguneko kuota	3,22

**3.5. ERANSKINA:** Erabilera publikoko lurren okupazioa hesi, aldamio eta antzeko instalazioekin.

<b>HESIAK, ALDAMIOAK, ESKORAK ETA ANSILLAK:</b>	<b>KUOTA</b>
A) Hesiak edozein obratan (eguneko, m <sup>2</sup> edo zatikia)	0,61
B) Aldamio finkoetan jarritako babesak, bide publikoan bermatuta, horien azpian askatasunez ibiltzea eragozten duten euskarriekin edo txarrantxeekin (m <sup>2</sup> -ko edo frakzioko eta eguneko).	0,61
C) Babes berberak, aldamioak bide publikoan bermatuta daudenean, ilaran dauden euskarriekin, fatxadarekiko paraleloan, fatxadatik 1,2 metroko edo gehiagoko distantziara, txarrantxarrik eta langetarik gabe, horien azpitik igarotzea ahalbidetzen duten 3 metrotik beherako altueran (m <sup>2</sup> edo frakzioko eta eguneko)	0,34
D) Babes berberak, aldamioak hegalean jarrita daudenean, 3 m-tik gorako altueran, bide publikoan bermatu gabe, horien azpitik libreki igaro ahal izateko moduan (m <sup>2</sup> -ko edo frakzioko eta eguneko)	0,21
E) Hesiz kanpoko eskorak edo asnilak (eguneko)	0,1

## **4.- ZERBITZUAK ESKAINI EDO UDAL JARDUERAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DUTEN ORDENANTZA.**

%2,6ko igoera aplikatzea onartu da.

**4.1. ERANSKINA:** Udal materialaren erabilera.

<b>UDAL MATERIALA</b>	<b>KUOTA</b>
-----------------------	--------------



**SEGURAKO UDALA**

<b>ERABILTZEAGATIKO TASA:</b>	
Eskailera, mahuka (eguneko)	10,70
Mahaiak, hesiak (eguneko)	1,05
Aulkiak (eguneko)	0,52
Ganadu-gurdia (eguneko)	13,91
Ganadu-gurdia (urteko)	55,43
Soldagailua (asteko)	13,91
Sorgailu elektrikoa (asteko)	13,91
Hormigoi makina (asteko)	13,91
Aldamioak (eguneko)	8,81
Zorrozteko makina (kutzila bakoitza)	4,09
Sega-makina (orduko)	11,92

**4.2. ERANSKINA:** Ikastaroak.

<b>IKASTAROAK</b>	<b>KUOTA</b>
A. SOINKETA	
Adinekoak	10,00
Bi egun	22,00
Hiru egun	25,00
B. YOGA	30,00
C. MARRAZKETA	35,00
D. DANTZA MODERNOA	27,00
E. EGUR TAILA	27,00
F. JOSTEKO MAKINA	40,00
G. PATINAJE TAILERRA	38,00
H. ZIRKU TAILERRA	38,00
I. UDAKO IGERIKETA	40,00
IKASTAROA	

**4.3. ERANSKINA:** Iragarkiak jartzea Segurako Udaleko egutegietan.

Eranskin hau sartzea erabaki da.

<b>EGUTEGIETAKO IRAGARKIAK</b>	<b>KUOTA</b>
San Joan jaietako esku programan iragarkia jartzea	35,00
Pareteko egutegian iragarkia jartzea	60,00



**SEGURAKO UDALA**

Seguran, 2023ko abenduaren 14an.

**Aprobación definitiva de las ordenanzas fiscales del año 2024.**

Transcurrido el plazo de información pública reglamentario sin que se haya presentado alegación o reclamación alguna, ha quedado definitivamente aprobado con efectos de 1 de enero del 2024, de conformidad con lo dispuesto en el art. 16 de la Norma Foral 11/89 de 5 de julio, la fijación y modificación de tipos, cuotas, tarifas y Ordenanzas Fiscales acordados por el Pleno en sesión de fecha 27 de septiembre de 2023.

Las modificaciones afectan a los siguientes conceptos:

**1.- IMPUESTOS:**

**1.1.- ORDENANZA REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE BIENES INMUEBLES**

Según la información facilitada por la Diputación Foral de Gipuzkoa el incremento del valor catastral para el año 2024 será del 2,5%.

En cuanto al tipo impositivo, se aprueba aplicar un incremento del 2,6%.

El ANEXO queda de la siguiente manera:

	<b>TIPO IMPOSITIVO (%)</b>
A) <u>BIENES DE NATURALEZA URBANA:</u> Bienes de naturaleza urbana situados en suelo residencial	0,2365
Bienes de naturaleza urbana situados en suelo industrial	0,5036
B) <u>BIENES DE NATURALEZA RÚSTICA:</u>	1,11

Bonificaciones:

<b>Número de personas de la unidad convivencial</b>	<b>BONIFICACIÓN</b>		
	<b>90%</b>	<b>75%</b>	<b>50%</b>
1	< 15.400 €	15.400 € - 17.500 €	17.501 € - 21.000 €
2	< 20.160 €	20.160 € - 22.820 €	22.821 € - 27.440 €
3	< 21.980 €	21.980 € - 25.060 €	25.601 € - 30.101 €



SEGURAKO UDALA

4 o más	< 23.660 €	23.660 € - 27.020 €	27.021 € - 32.340 €
---------	------------	---------------------	---------------------

Documentación a presentar: Información fiscal facilitada por Hacienda.

## 1.2.- ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA

Se aprueba aplicar a los coeficientes un incremento del 2,6%.

El ANEXO queda de la siguiente manera:

IBILGAILU MOTA ETA POTENTZIA	POTENCIA Y CLASE DE VEHÍCULO	KUOTA
<b>A) <u>TURISMOAK:</u></b> 9 zaldi fiskaletik beherakoak 9-11,99 zaldi f. bitartekoak 12-13,99 zaldi f. bitartekoak 14-15,99 zaldi f. bitartekoak 16-19,99 zaldi f. bitartekoak 20 zaldi fiskaletik gorakoak	<b>A) <u>TURISMOS:</u></b> De menos de 9 c.f. De 9 hasta 11,99 c.f. De 12 hasta 13,99 c.f. De 14 hasta 15,99 c.f. De 16 hasta 19,99 c.f. De más de 20 c.f.	40,77 82,55 149,51 209,31 269,13 328,93
<b>B) <u>AUTOBUSAK:</u></b> 21 plaza baino gutxiagokoak 21-50 plaza bitartekoak 50 plaza baino gehiagokoak	<b>B) <u>AUTOBUSES:</u></b> Autobuses de menos de 21 plazas De 21 a 50 plazas De más de 50 plazas	198,45 280,38 352,68
<b>C) <u>KAMIOIAK:</u></b> 1.000 kg baino beherako k.e. 1.000-2.999 kg bitarteko k.e. 2.999 kg-9.999 kg bitarteko k.e. 9.999 kg baino gehiagoko k.e.	<b>C) <u>CAMIONES:</u></b> De menos de 1.000 kg de c.u. De 1.000. kg a 2.999 kg de c.u. De 2.999 kg a 9.999 kg de c.u. De más de 9.999 kg de c.u.	101,15 198,40 280,38 352,68
<b>D) <u>TRAKTOREAK:</u></b> 16 zaldi fiskal baino gutxiagokoak 16-25 zaldi f. bitartekoak 25 zaldi fiskal baino gehiagokoak	<b>D) <u>TRACTORES:</u></b> De menos de 16 c.f. De 16 a 25 c.f. De más de 25 c.f.	42,52 66,37 198,40
<b>E) <u>TRAKZIO MEKANIKOKO IBILGAILUEK ERAMANDAKO ATOIAK ETA ERDI-ATOIAK:</u></b> 750-1.0000 kg bitarteko k.e. 1.000-2.999 kg bitarteko k.e. 2.999 kg baino goragoko k.e.	<b>E) <u>REMOLQUES Y SEMIREMOLQUES ARRASTRADOS POR VEHÍCULOS DE TRACCIÓN MECÁNICA:</u></b> De menos de 1.000 kg de c.u. De 1.000 a 2.999 kg de c.u. De más de 2.999 kg de c.u.	42,63 65,82 198,40
<b>F) <u>BESTELAKO IBILGAILUAK:</u></b>	<b>F) <u>OTROS VEHÍCULOS:</u></b>	



**SEGURA UDALA**

Ziklomotoreak	Ciclomotores	11,13
125 z.k. baino gutxiagoko motozikletak	Motocicletas hasta 125 cm3	11,13
125-250 z.k. bitarteko motozikletak	Motocicletas de más de 125 hasta 250 cm3	20,20
250-500 z.k. bitarteko motozikletak	Motocicletas de más de 250 hasta 500 cm3	39,47
500-1.000 z.k. bitarteko motozikletak	Motocicletas de más de 500 hasta 1.000 cm3	78,95
1.000 z.k. baino goragoko motozikletak	Motocicletas de más de 1.000 cm3	157,83

### **1.3.- ORDENANZA FISCAL REGULADORA DEL IMPUESTO SOBRE EL INCREMENTO DEL VALOR DE LOS TERRENOS DE NATURALEZA URBANA**

